



Lehendakaria / Presidente

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Kidea / Vocal

M^a Aranzazu Arana Learte

Idazkari - Kidea / Vocal - Secretaria

María Yeregui Hernández

Resolución 2/2018 ebazpena

Recurso 1/2018 errekurtsua

EUSKAL HERRIKO ARKITEKTOEN ELKARGO OFIZIALAK 2018ko maiatzaren 15eko Diputatuen Kontseiluko Erabakiak onartutako "Zahartzearen eta mendekotasunaren arloko erreferentziatzko zentro bat eta lurpeko aparkaleku bat Hospitalillo inguruan (Pasaia) egikaritzeko proiektuak eta beste ikerketa tekniko osagarri batzuk idaztea" zerbitzu-kontratuaren agirien aurka jarritako kontratazio-alorreko errekurtsu berezian, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak, gaurko egunean burututako saioan, gorago adierazi diren kideak bertan zirela, aho batez onartu du ondorengo erabakia.

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por el COLEGIO OFICIAL DE ARQUITECTOS VASCO-NAVARRO contra los pliegos del contrato de servicios de "Redacción de proyectos y otros estudios técnicos complementarios para la ejecución de un centro de referencia en materia de atención al envejecimiento y la dependencia, así como un aparcamiento subterráneo, en la zona del Hospitalillo (Pasaia)", aprobados por Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 15 de mayo de 2018, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada en el día de la fecha, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

AURREKARIAK

LEHENA.- 2018ko ekainaren 8an Auzitegiko erregistroan aurkeztutako idazki bidez, EUSKAL HERRIKO ARKITEKTOEN ELKARGO OFIZIALEKO (EHAEO) Dekano-Presidenteak, korporazio horren izenean, kontratazio-alorreko errekurtsu berezia jarri zuen ebazpen honen hasieran adierazitako agirien aurka.

BIGARRENA.- 2018ko ekainaren 11n, Auzitegiak idazkia helarazi zion Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuari, errekurtsuaren kopia atxikita zuena, espedientea eta errekurtsuaren eta bertan eskatzen zen kautelazko neurriaren inguruko txostena eskatuta. Hori guztia Auzitegiaren erregistroan sartu zen 2018ko ekainaren 29an.

ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO.- Mediante escrito presentado en el registro del Tribunal el día 8 de junio de 2018, la Decana-Presidenta del COLEGIO OFICIAL DE ARQUITECTOS VASCO-NAVARRO (COAVN), actuando en representación de dicha corporación, interpuso recurso especial en materia de contratación contra los pliegos referidos en el encabezamiento de esta resolución.

SEGUNDO.- El 11 de junio de 2018 el Tribunal dirigió oficio al Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio, remitiéndole copia del recurso y reclamándole el expediente y el correspondiente informe acerca del recurso y de la medida cautelar que en él se solicitaba. Todo lo cual tuvo entrada en el registro del Tribunal el día 29 de junio de 2018.



HIRUGARRENA.- Auzitegi honen 2018ko uztailaren 5eko Ebazpenaren bidez bertan behera geratu zen kontratazio-prozeduraren izapidetzea proposamenak aurkezteko epearen amaieratik hasita eta errekurtso honen ebazpena izan arte.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Errekurtsoaren onargarritasuna

LEHENA.- Errekurtso berezi hau 1.152.892,56 euroko balio zenbatetsia duen zerbitzu-kontratu baten agirien aurka jarri da.

Beraz, errekurritutako agiriaren aurka kontratazio-alorreko errekurtso berezia jar daiteke hala xedatzen baita azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 44. artikulua (1.a) eta 2.a) paragrafoetan.

Errekurtso horren berri izateko eskumena Auzitegi honi dagokio, irailaren 28ko kontratazio-alorreko errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzeko 24/2010 Foru Dekretuaren 2.1 artikuluan esleitzen baitzaio.

BIGARRENA.- Errekurtsoa agiriak eta lizitazioa kontratatzailearen profilean argitaratu eta ondorengo hamabost lanegunen barruan jarri da, 9/2017 Legearen 50.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

HIRUGARRENA.- Errekurtsoa jarri duen Elkargo Profesionalak 9/2017 Legearen 48. artikuluan eskatzen den legitimazioa dauka errekurtso hau jartzeko, berezko nortasun juridikoa eta bere xedeak betetzeko gaitasun osoa daukan Zuzenbide Publikoko Korporazioa baita eta otsailaren 13ko Elkargo Profesionalei buruzko 2/1974 Legearen 5.g) artikulua berariaz esleitzen baitio bere lurralde-esparruan lanbidearen ordezkari eta defentsa burutzeko eginkizuna Administrazioaren eta Auzitegien aurrean, auzietan alderdi izateko legitimazioarekin, betiere auziak interes profeseionalei eragiten badie.

TERCERO.- Mediante Resolución de este Tribunal de 5 de julio de 2018 se suspendió la tramitación del procedimiento de contratación desde la finalización del plazo para la presentación de proposiciones hasta que se resuelva el presente recurso.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Admisibilidad del recurso

PRIMERO.- Este recurso especial se interpone contra los pliegos de un contrato de servicios cuyo valor estimado asciende a 1.152.892,56 euros.

Por lo tanto, el pliego recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo los apartados 1.a) y 2.a) del artículo 44 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP).

La competencia para conocer del recurso corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

SEGUNDO.- El recurso se ha interpuesto dentro del plazo de quince días hábiles contados a partir del día siguiente a aquel en que se publicaron los pliegos y el anuncio de licitación en el perfil del contratante, según lo dispuesto por el artículo 50.1.b) LCSP.

TERCERO.- Concorre en el Colegio Profesional recurrente la legitimación exigida en el artículo 48 LCSP para interponer el presente recurso, pues se trata de una Corporación de Derecho Público con personalidad jurídica propia y plena capacidad para el cumplimiento de sus fines, a la que el artículo 5.g) de la Ley 2/1974, de 13 de febrero, sobre Colegios Profesionales, atribuye expresamente la función de ostentar en su ámbito territorial la representación y defensa de la profesión ante la Administración y los Tribunales, con legitimación para ser parte en cuantos litigios afecten a los intereses profesionales.



Gatazkaren planteamendua:

LAUGARRENA.- 2018ko maiatzaren 15eko Erabaki bidez, Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuko titularraren proposamenari jarraituta onetsi zena, Diputatuen Kontseiluak "Zahartzearen eta mendekotasunaren arloko erreferentziatzeko zentro bat eta lurpeko aparkaleku bat Hospitalillo inguruan (Pasaia) egikaritzeko proiektuak eta beste ikerketa tekniko osagarri batzuk idaztea" zerbitzuaren kontratazio-espedita onartu zuen, baldintza administratibo berezien agiriarekin (BABA) eta preskripzio tekniko berezien agiriarekin (PTBA) batera, eta prozedura irekiko lizitazioari ekitea agindu zuen.

Lizitazioaren iragarkia Eusko Jaurlaritzaren kontratatzaile-profilean argitaratu zen maiatzaren 18an eta Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean 2018ko maiatzaren 23an.

PTBAren 1., 3. eta 10. ataletan xedatutakoaren arabera, kontratuaren xedea honako dokumentuak idaztea da:

- Aurretik dagoen eraikinaren eraiste-proiektua.
- Aurreproiektua.
- Oinarrizko proiektua.
- Jarduera-proiektuak (edo dagokion dokumentazio teknikoa).
- Egikaritze-proiektua (instalazioen garapenarekin).
- Egikaritze-proiektuaren ikerketa tekniko osagarriak: segurtasun- eta osasun-ikerketa, kalitate kontrolaren plana eta eraikuntza eta eraiste hondakinen kudeaketaren ikerketa.
- Kontratuaren xedearen esparruan indarrean dagoen araudiak edo administrazio eskudunek eskatzen dituzten gainerako dokumentuak.

BABAren ezaugarri-taularen 11.2 atalak honakoa eskatzen du gaitasun teknikoa egiaztatzeko:

Planteamiento de la controversia

CUARTO.- Por Acuerdo de 15 de mayo de 2018, adoptado a propuesta de la titular del Departamento de Movilidad y Ordenación del Territorio, el Consejo de Gobierno Foral aprobó el expediente de contratación del servicio de "Redacción de proyectos y otros estudios técnicos complementarios para la ejecución de un centro de referencia en materia de atención al envejecimiento y la dependencia, así como un aparcamiento subterráneo, en la zona del Hospitalillo (Pasaia)", así como los pliegos de cláusulas administrativas particulares (PCAP) y de prescripciones técnicas particulares (PPTP), y dispuso la apertura de la licitación por el procedimiento abierto.

El anuncio de licitación fue publicado en el perfil del contratante del Gobierno Vasco el 18 de mayo y en el Diario Oficial de la Unión Europea el 23 de mayo de 2018.

El contrato tiene por objeto, según lo dispuesto en los apartados 1, 3 y 10 del PPTP, la redacción de los siguientes documentos:

- Proyecto de demolición del edificio existente.
- Anteproyecto.
- Proyecto básico.
- Proyectos de actividad (o documentación técnica correspondiente).
- Proyecto de ejecución (con desarrollo de las instalaciones).
- Estudios técnicos complementarios al proyecto de ejecución: estudio de seguridad y salud, plan de control de calidad y estudio de gestión de residuos de construcción y demolición.
- Cualesquiera otros requeridos por la normativa vigente en el ámbito del objeto del contrato, o por las Administraciones competentes.

Para acreditar la solvencia técnica el apartado 11.2 del cuadro de características del PCAP exige:



- | | |
|---|--|
| <p>a) Gutxienez, agiri honen xede den lanaren berdina edo antzeko lana egin izana gehienez ere azken hiru urteetan. Lan horren aurrekontua (BEZ kanpo) ezin da izan kontratu honen lizitaziorako oinarritzko aurrekontuaren (hau da, 1.395.000 euro, BEZ barne) %35 baino baxuagoa.</p> <p>b) Adieraztea kontratuan parte hartuko duten langile teknikoak, enpresan integratuta egon ala ez. Talde teknikoak osatuko dituzte, gutxienez, arkitekto batek eta instalazioetan aditua den ingeniari edo ingeniari tekniko batek (instalazio termikoak, elektrikoak, suteetakoak eta abar).</p> | <p>a) Haber ejecutado, como mínimo, un trabajo de igual o similar naturaleza al que constituye el objeto del presente pliego en el curso de, como máximo, los tres últimos años, y cuyo importe (IVA no incluido) no haya sido inferior al 35% del presupuesto base de licitación del presente contrato, que asciende a 1.395.000 euros (IVA incluido).</p> <p>b) Indicación del personal técnico, integrado o no en la empresa, participante en el contrato, debiendo los equipos técnicos estar constituidos, como mínimo, por un arquitecto y por un ingeniero o ingeniero técnico especialista en instalaciones (térmicas, eléctricas, incendios, etc.).</p> |
|---|--|

Eskaintzak balioesteko helburuarekin, BABArekin ezaugarri-taularen 14. atalak honako irizpideak ezartzen ditu:

Balio-judizio bidez balioetsi beharreko irizpideei 48 puntura arte esleitzen zaizkie. Irizpide horiek lizitatuzaileek aurkeztutako proposamen teknikoaren balorazioa egiteko balio dute, hau da, ideia moduan aurreikusitako irtenbidearen aurrerapena aztertzeko, gutxi gorabeherako 32.250.000 euroko aurrekontuarekin, honako alderdiak aintzat hartuta:

- a) Arkitektura: 30 puntura arte.
- b) Hirian txertatzea: 9 puntura arte.
- c) Instalazioak: 9 puntura arte.

Automatikoki ebaluatu beharreko irizpideei 52 puntu esleitzen zaizkie, jarraian adierazitako moduan banatuta:

- Proposamen ekonomikoa: 48 puntura arte.
- Lizitatuzailearen bulego profesionalak proiektuak idazteari buruzko ISO 9000:2015 kalitate-egiaztagiri bat aurkeztea: puntu 1.
- Enpresa lizitatuzailearen bulego profesionalak obrako edo zerbitzuko teknikari bat kontratatzea, kontratu honen xedeari lotuta eta dedikazio

Para valorar las ofertas el apartado 14 del cuadro de características del PCAP establece los siguientes criterios:

A los criterios a valorar mediante juicio de valor se asignan hasta 48 puntos, que valoran la propuesta técnica a presentar por los licitadores, consistente en un avance de la solución prevista a nivel de idea, para unas obras cuyo presupuesto orientativo es de 32.250.000 euros, valorándose los siguientes aspectos:

- a) Arquitectura: hasta 30 puntos.
- b) Implantación urbana: hasta 9 puntos.
- c) Instalaciones: hasta 9 puntos.

Los criterios evaluables de forma automática se valoran con 52 puntos, que se desglosan del siguiente modo:

- Propuesta económica: hasta 48 puntos.
- Certificado de calidad ISO 9000:2015, relativo a la redacción de proyectos del despacho profesional del licitador: 1 punto.
- Contratación, por obra o servicio, de un técnico específicamente vinculado al objeto del contrato y con dedicación completa, que supondrá 0,5 puntos



osoarekin, kontratu bakoitzeko 0,5 punturekin: gehienez puntu 1.

- Proiektua Autocad formatuan aurkezteaz gain BIM (Building Information Modeling) formatuan aurkeztea: 2 puntu.

BOSGARRENA.- Kontratazio-espediente horren BABaren aurka errekurtso hau jarri da eta bertan aurkaratu dira BABaren ezaugarri-taularen gaitasun teknikoaren inguruko 11.2.a) atala eta automatikoki ebaluatu beharreko irizpideen inguruko 14.2 atala kalitate-egiaztagiriari eta BIM formatuari dagokienez. Halaber, BABan aurreikusitako esleipen-prozedura aurkaratu da, proiektuen lehiaketetarako arau bereziak aplikatu beharko lirakeela argudiatuta.

Aurkezpen-idazkiaren erreguen atalean eskatzen da errekurritutako agiriak alda daitezen eta deialdia deusezta dadin, aurkeztutako alegazioak aintzat hartzen dituen beste deialdi bat burutzeko.

Esleipen-prozedura

SEIGARRENA.- Arrazoi sistematikoak direla eta, esleipen-prozedurari dagokion errekurtsoaren arrazoia jorratuko da lehenik.

EHAEOak dio, kontratuaren xedea izanda proiektuak eta ideia moduan emandako bestelako ikerketa tekniko osagarriak idaztea, esleipen-prozedurak 9/2017 Legearen 183-187 artikuluetan aurreikusitako proiektuen lehiaketei aplikatzen zaizkien arau bereziak jarraitu behar zituela.

Kontratazio-organoak uste du BABan ezarritako prozedura irekia 9/2017 Legearen 131. artikuluan xedatutakoarekin bateragarria dela, proiektuen lehiaketei aplikatzen zaizkien arau bereziak aplikatzeko beharrik izan gabe, agiriak ez baitute osatzen ondorengo zerbitzu-kontratu baten esleipenaren aurretiko fasea den ideia- edo proiektu-lehiaketarik. Aldiz, kontratazio-organoaren arabera, agiriak proiektuen idazketa-zerbitzu bati dagozkion prestazioak aurreikusten

por contrato: hasta 1 punto.

- Presentación del proyecto, además de en Autocad, en formato BIM (Building Information Modeling): 2 puntos.

QUINTO.- Contra el PCAP de este expediente de contratación se ha interpuesto el presente recurso, en el que se impugnan el apartado 11.2.a) del cuadro de características del PCAP, relativo a la solvencia técnica, y también su apartado 14.2 relativo a los criterios evaluables de forma automática, en lo que afecta al certificado de calidad y al formato BIM. Asimismo, se impugna el procedimiento de adjudicación previsto en el PCAP, por considerar que se deberían aplicar las normas especiales previstas para los concursos de proyectos.

En el suplico del escrito de interposición se solicita la modificación de los pliegos recurridos y la anulación de la convocatoria, realizándose otra que tenga en cuenta las alegaciones formuladas.

Procedimiento de adjudicación

SEXTO.- Por razones sistemáticas se abordará, en primer lugar, el motivo de recurso relativo al procedimiento de adjudicación.

Alega el COAVN que al tener por objeto el contrato la redacción de proyectos y otros estudios técnicos complementarios a nivel de idea, el procedimiento de adjudicación debería haber seguido las normas especiales aplicables a los concursos de proyectos, previstas en los artículos 183 a 187 LCSP.

El órgano de contratación considera que el procedimiento abierto establecido en el PCAP se ajusta a lo dispuesto en el artículo 131 LCSP, sin que se hayan de aplicar las normas especiales de los concursos de proyectos, porque los pliegos no configuran un concurso de ideas o proyectos como fase previa a la adjudicación de un posterior contrato de servicios, sino que contemplan unas prestaciones propias de un servicio de redacción de proyectos, que desemboca directa e



dituzte eta zerbitzu horren zuzeneko eta berehalako emaitza obra- eta jarduera-lizentzien eskuratzea da; agirik ez dituzte bereziki aztertzen sormenaren edo estetikaren alderdiak, automatikoki ebaluatu beharreko irizpideek formula bidez ebaluatzen ez direnek baino puntuazio gehiago baitute; eta kontratatutako zerbitzuaren egikaritzea Administrazioaren beraren teknikari eskudunen zuzendaritzaren eta gainbegiratzearen pean uzten dute.

ZAZPIGARRENA.- Gauzak horrela, aurkaratze-arrazoi hau ezin da onartu jarraian adierazitakoa dela eta.

9/2017 Legearen 131. artikulua 2. paragrafoan xedatutakoaren arabera, Administrazio Publikoek gauzatzen dituzten kontratuak, zerbitzu-kontratu hau kasu, esleitu behar dira, oro har, kalitate-prezio harreman onenaren printzipioan oinarritutako esleipen-irizpide anitzak erabilita eta prozedura irekiaren edo prozedura murriztuaren bitartez.

Halaber, artikulua horren 5. paragrafoan gehitzen da proiektuen lehiaketetan 9/2017 Legearen 183-187 artikuluetan araututako prozedura erabiliko dela, lehiaketa horietarako arau berezi aplikagarriak dituen. Bertan xedatu ez diren alderdietarako, prozedura murriztuko arauak jarraituko dira, 9/2017 Legearen 187.10 artikuluan xedatutakoaren arabera, parte-hartzaileen kopurua mugatua izatekotan eta, kopurua mugatua ez izatekotan, prozedura irekia erabiliko da, bateraezinak ez diren alderdi guztietan, zerbitzuen kontratazioa arautzen duten xedapenekin batera. Gainera, proiektuen lehiaketen inguruko arau horiek arau-garapen prozesu bat igaro beharko dute, 9/2017 Legearen 187.11 artikuluan xedatutakoaren arabera, baina garapen hori oraindik ere ez da burutu.

Honela, 9/2017 Legearen 183. artikulua 1. paragrafoak honakoa xedatzen du: *"proiektuen arteko lehiaketak dira helburutzat planoak eta proiektuak eskuratzea duten prozedurak, batez ere arkitekturaren, hirigintzaren, ingeniartzaren eta datu-prozesatzearen arlokoak. Proiektu eta plano horiek eskuratzeko, lizitazioa egiten da lehenbizi eta,*

inmediatamente en la obtención de las correspondientes licencias de obra y actividad; no valoran principalmente la creatividad ni la estética, porque otorgan a los criterios automáticos una puntuación mayor que a los no evaluables mediante fórmulas; y sujetan la ejecución del servicio contratado a la dirección y supervisión de los técnicos competentes de la propia Administración.

SÉPTIMO.- Pues bien, este motivo de impugnación ha de ser desestimado por lo que a continuación se dirá.

De acuerdo con lo dispuesto por el apartado 2 del artículo 131 LCSP, los contratos que celebren las Administraciones Públicas, como el presente de servicios, se han de adjudicar, ordinariamente, utilizando una pluralidad de criterios de adjudicación basados en el principio de mejor relación calidad-precio, y por medio del procedimiento abierto o el restringido.

Añade el apartado 5 que en los concursos de proyectos se seguirá el procedimiento regulado en los artículos 183 a 187 LCSP, los cuales contienen unas normas especiales aplicables a tales concursos. En lo no previsto en ellos, se regirán, según el artículo 187.10 LCSP, por las normas del procedimiento restringido, en caso de que se limite el número de participantes, y en caso contrario, del procedimiento abierto, en todo aquello en que no resulten incompatibles, así como por las disposiciones reguladoras de la contratación de servicios. Además, esas normas relativas a los concursos de proyectos serán objeto de desarrollo reglamentario, a tenor del artículo 187.11 LCSP, lo que todavía no se ha producido.

Así, el apartado 1 del artículo 183 LCSP dispone que *"son concursos de proyectos los procedimientos encaminados a la obtención de planos o proyectos, principalmente en los campos de la arquitectura, el urbanismo, la ingeniería y el procesamiento de datos, a través de una selección que, tras la correspondiente licitación, se encomienda a un jurado"*.



ondoren, epaimahai baten esku uzten da erabakia".

2. paragrafoan zehazten da arau berezi hauek honakoei aplikatuko zaizkiela:

"a) Zerbitzu-kontratu bat esleitzeko prozeduren barruan antolatutako proiektu-lehiaketek, non sariak emateko edo ordainketak burutzeko aukera egongo den.

(...)

b) Parte hartzeagatik saria edo ordaina duten proiektuen lehiaketak".

Proiektu-lehiaketa antolatuko balitz zerbitzu-kontratu baten esleipen-prozeduraren esparruan, 9/2017 Legearen 168.d) artikulua baimena ematen du proiektu-lehiaketaren ondorengo zerbitzu-kontratua publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bitartez esleitzeko, baldintza hori alde aurretik adierazita lehiaketaren lizitazioaren iragarkian, 9/2017 Legearen 186.2 artikuluan eskatzen dena betez.

9/2017 Legearen 183. artikulua 3. paragrafoak honako xedapen berria gehitu du, aurreko araudiarekin alderatuta: "esleitu behar den zerbitzu-kontratuaren xedea arkitekturaren, ingeniartzaren eta hirigintzaren arloetako proiektu bereziki konplexuen idazketaren ingurukoa denean eta, proiektu horien idazketarekin batera, lan osagarrien eta obrarazuzendaritzaren inguruko proiektuen idazketa ere kontratatzen denean, kontratazio-organismoek atal honetako arauak aplikatu beharko dituzte".

Bestalde, proiektu-lehiaketetan, proposamenen balorazioa, 9/2017 Legearen 184. artikulua 3. paragrafoaren arabera, proposamenen kalitatean eta horien balio teknikoan, funtzionalean, arkitektonikoan, kulturean eta ingurumen-balioan oinarritu beharko da.

Azkenik, hemen jorratzen ari garenaren ildotik, proiektu-lehiaketetan ez dago Kontratazio Mahaiaren esku-hartzerik, aldiz, proiektuak aurkezteko epea amaituta, 9/2017 Legearen 187. artikulua xedatutakoaren arabera, epaimahai bat osatuko da eta epaimahai horretako kideak lehiaketaren oinarrien arabera izendatutako parte-

Añade en su apartado 2 que se aplicarán estas normas especiales a los:

"a) Concursos de proyectos organizados en el marco de un procedimiento de adjudicación de un contrato de servicios, en los que eventualmente se podrán conceder premios o pagos.

(...)


b) Concursos de proyectos con premios o pagos a los participantes".

En el caso de que el concurso de proyectos se organice en el marco de un procedimiento de adjudicación de un contrato de servicios, el artículo 168.d) LCSP autoriza que el contrato de servicios ulterior al concurso de proyectos se adjudique mediante un procedimiento negociado sin publicidad, previa indicación de ello en el anuncio de licitación del concurso, según lo exige el artículo 186.2 LCSP.

El apartado 3 del artículo 183 LCSP ha añadido, con carácter novedoso respecto a la regulación anterior, que "cuando el objeto del contrato de servicios que se vaya a adjudicar se refiera a la redacción de proyectos arquitectónicos, de ingeniería y urbanismo que revistan especial complejidad y, cuando se contraten conjuntamente con la redacción de los proyectos anteriores, a los trabajos complementarios y a la dirección de las obras, los órganos de contratación deberán aplicar las normas de esta sección".

Por su parte, la valoración de las propuestas en los concursos de proyectos se ha de referir, según el apartado 3 del artículo 184 LCSP, a la calidad de las mismas y a sus valores técnicos, funcionales, arquitectónicos, culturales y medioambientales.

Por último, en lo que aquí interesa, en los concursos de proyectos no hay intervención de la Mesa de Contratación, sino que, una vez finalizado el plazo de presentación de las propuestas de proyectos, se constituirá, de acuerdo con lo dispuesto por el artículo 187 LCSP, un jurado cuyos miembros serán designados de



hartzaileekiko independenteak diren pertsona fisikoak izango dira. Epaimahaiak txosten batean jasoko du proiektuen sailkapena, bakoitzaren merituak kontuan hartuta, eta txosten hori kontratazio-organoari helaraziko dio hark lehiaketa esleie diezaion epaimahaiak adierazitako parte-hartzaileari.

ZORTZIGARRENA.- Kontratazio-organoak jakinarazi duen moduan, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Auzitegi Administratibo Zentralak (KAEAAZ) hemen aurkeztutako alegazioaren berdina aztertu zuen bere maiatzaren 13ko 380/2016 Ebazpenean. Ebazpen horretan, hemen errekurtsogilea den korporazio berak jarritako kontratazio-alorreko errekurtso berezia garaiz kanpoko izateagatik onartu ez arren, argudiatutako errekurtso-arrazoiak aztertu zituen ere eta ondorioztatu zuen, ez onartzeko arrazoirik egon izan ez balitz ere, arrazoiak ezin onartuzkoak zirela, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren (SPKLTB) 184-188 artikuluetan aurreikusitako proiektu-lehiaketetarako arau berezien aplikazio-eremuaren ondorengo interpretazioa oinarri hartuta:

"(...) proiektu-lehiaketaren aplikazio-eremuaren (...) ezaugarri nagusia da, II. Eranskinaren 12. kategorian aurreikusitako arkitektura, ingeniari eta abar zerbitzuren ohiko kontratazioan ez bezala (oro har prozedura ireki edo murriztu bidez egiten dena, edo kasuaren arabera, prozedura negoziatu bidez edo lehia-elkarrizketa bidez), proiektu-lehiaketarekin Administrazioak lizitazioa antolatzen duela epaimahai baten bitartez ondorengo proiektu bat (zerbitzua) garatzeko ideiarik onena hautatzeko helburuarekin, garapen hori ideiaaren autoreari enkargatzeko edo ez enkargatzeko aukerarekin eta, egikaritzea ideiaaren autoreari enkargatzekotan, prozedura negoziatua aplikagarria izanda, SPKLTBaren 174.d) artikuluan xedatutakoaren arabera. Proiektu-lehiaketa ez da arkitektura-proiektuen idazketarako zerbitzuak esleitzeko halaberrez erabili beharreko ohiko prozedura, errekurtsogileak adierazitako moduan, baizik eta aurretiko ideiak edo irizpideak lortzeko kasu berezia, zerbitzuaren kontratazioaren aurretiko fasean aplikagarria dena. Horregatik aurreikusten du

conformidad con las bases del concurso y compuesto por personas físicas independientes de los participantes. El jurado hará constar en un informe la clasificación de los proyectos, teniendo en cuenta los méritos de cada uno, informe del que dará traslado al órgano de contratación para que éste proceda a la adjudicación del concurso al participante indicado por el jurado.

OCTAVO.- Tal como ha informado el órgano de contratación, el Tribunal Administrativo Central de Recursos Contractuales (TACRC) ha analizado idéntica alegación a la aquí formulada en su Resolución nº 380/2016, de 13 de mayo, por la que, a pesar de inadmitir por extemporáneo el recurso especial en materia de contratación interpuesto por la misma corporación aquí recurrente, también examinó los motivos de recurso alegados y concluyó que, de no mediar causa de inadmisión, habrían de ser desestimados por razones de fondo, con base en la siguiente interpretación del ámbito de aplicación de las normas especiales de los concursos de proyectos, previstas en los artículos 184 a 188 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, aprobado por el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre (TRLCSF):

"(...) el ámbito de aplicación del concurso de proyectos (...) se caracteriza por que, a diferencia de la contratación habitual de servicios de arquitectura, ingeniería, ... de los previstos en la categoría 12 del Anexo II, (por el procedimiento abierto o restringido como regla general, o en su caso, por el procedimiento negociado o mediante un diálogo competitivo), con el concurso de proyectos la Administración licita para seleccionar, por medio de un jurado, la mejor idea para desarrollar un posterior proyecto (servicio), que se podrá encargar o no al autor de la idea, siendo aplicable, en caso afirmativo, el procedimiento negociado con base en el artículo 174.d) del TRLCSF. El concurso de proyectos no es el procedimiento habitual al que necesariamente hay que acudir para la adjudicación de servicios cuyo objeto sea la redacción de proyectos de arquitectura, como sostiene la recurrente, sino un supuesto especial para la obtención de ideas o criterios previos, aplicable a la fase anterior a la contratación del servicio propiamente dicho. De ahí que el artículo 184.2.a)



184.2.a) artikulua proiektu-lehiaketa baten aplikazioa "zerbitzu-kontratu bat esleitzeko" edo, bigarren kasu gisa, "parte-hartzeagatik saria edo ordaina duten proiektu-lehiaketetan", hau da, Administrazioak ondorengo zerbitzu-kontratuarekin loturarik ez duen "ideia-lehiaketa" baten lizitazioa antolatzen duenean, parte-hartzea sari edo ordainen bidez sustatuta. Administrazioak proiektu-lehiaketarekin lortu nahi duena da, azken batean, ideiarik edo proiekturik onena lortzea, kasuaren arabera proiektuaren beraren egikaritzaren abiapuntua izango dena ondorengo zerbitzu-kontratu baten bidez, aurretiko proiektu-lehiaketaren fase horretan lehentasuna emanda ideiazintzaren, originaltasun estetikoaren, teknikoaren edo funtzionalaren alderdiari eta ebaluazioa, betiere parte-hartzaile anonimoekin, pertsona fisiko independenteek osatutako epaimahai espezializatu baten esku utzita.

Laburbilduz, zerbitzu arkitektonikoetarako kontratuen esleipena (edo ingeniari-tza, hirigintza eta bestelako arloetako) oro har prozedura ireki edo murriztu bidez burutu behar da (SPKLTBaren 138.2 artikulua) eta Administrazioak, nahi izanez gero, aurretiko proiektu-lehiaketa fase bat antolatu ahalko du ondorengo zerbitzu-kontratuaren oinarri izango diren planak edo proiektuak eskuratzeko xedearekin. Administrazioaren aldetiko obra-proiektuen idazketak ez du halaberrez eta derrigorrez eskatzen proiektu-lehiaketa baten deialdia antolatzea, aldiz, Administrazioak aukera hori aintzat hartu beharko du, bere beharren eta egoera zehatzaren arabera".

Ebazpen horretan bertan, KAEEAZk jada aztertu zuen 2012ko apirilaren 23ko Auzitegi Gorenaren epaiak (3141/2011 errekurtsua), EHAEOK berriz ere errekurtsu honetan aipatzen duena, baina ez zuen aplikagarritzat jo jarraian adierazitako arrazoiengatik:

"Elkargo Ofizial errekurtsogileak aipatzen duen 2012ko apirilaren 23ko Auzitegi Gorenaren epaiak, erabaki bakarra izateaz gain eta, beraz, Kode Zibilararen 1.6 artikulua arabera jurisprudentzia ez osatzeaz gain, Lehenengo Zuzenbideko Oinarrian errepikatzen du 2011ko otsailaren 11ko Kanariar Uharteetako Auzitegi Nagusiko epaiaren testua, errekurtsogileak bere errekurtsu berezian partzialki komatxo artean ezartzen duena Auzitegi Gorenaren adierazpenak balira bezala; aldiz, Auzitegi Gorenak

contemple la aplicación del concurso de proyectos "en el marco de un procedimiento de adjudicación de un contrato de servicios", o, como segundo supuesto, en caso de "concursos de proyectos con primas de participación o pagos a los participantes", esto es, cuando la Administración licita un "concurso de ideas" desvinculado en principio de un posterior contrato de servicios, estimulando la participación a través de primas o pagos a los participantes. Lo que la Administración pretende con el concurso de proyectos es, en suma, conseguir la mejor idea o proyecto, que dará lugar, en su caso, a la elaboración del proyecto propiamente dicho a través de un posterior contrato de servicios, primando en esa previa fase del concurso de proyectos un componente de ideación, de originalidad estética, técnica o funcional cuya valoración, sobre la base del anonimato de los participantes, se encomienda a un jurado especializado integrado por personas físicas independientes.

En definitiva, la adjudicación de los contratos de servicios arquitectónicos (o de ingeniería, urbanismo...) se ha de realizar como regla general por el procedimiento abierto o restringido (artículo 138.2 del TRLCSP), pudiendo la Administración, potestativamente, acordar una fase previa de concurso de proyectos para obtener los planes o proyectos que den lugar al posterior contrato de servicios. La redacción de proyectos de obra por la Administración no precisa necesaria e inexcusablemente la convocatoria de un concurso de proyectos, sino que ello deberá valorarse discrecionalmente por la Administración, a la vista de sus necesidades y de las circunstancias concurrentes".

En esta misma Resolución el TACRC ya valoró la sentencia del Tribunal Supremo de 23 de abril de 2012 (recurso 3141/2011) que el COAVN vuelve a invocar en el presente recurso, pero no la consideró de aplicación por los siguientes motivos:

"La sentencia del Tribunal Supremo de 23 de abril de 2012 invocada por el Colegio Oficial recurrente, además de constituir un único pronunciamiento que, como tal, no constituye jurisprudencia conforme al artículo 1.6 del Código Civil, reproduce en su Fundamento de Derecho Primero la literalidad de la sentencia del Tribunal Superior de Justicia de Canarias de 11 de febrero de 2011, que la recurrente entrometió parcialmente en su recurso especial como si fueran manifestaciones del propio Tribunal



bere epaia oinarritzen du (Hirugarren Zuzenbideko Oinarria) Administrazio kontratatzaileak duen auzialdiko Salak emandako ondorioa indargabetzeko argudiorik ezan eta zehazki adierazten du kontratuaren xedea (haren edukia epaitik ondorioztatzen ez bada ere) "ez zela plano edo proiektu horiek eskuratzea edo ez zela zerbitzu-kontratu baten esleipen-prozeduraren esparruan antolatutako proiektu-lehiaketa bat".

BEDERATZIGARRENA.- Gauzak horrela, aurkaratu diren agiriei dagokien kontratuaren xedea da, PTBAren 1. atalaren arabera, ebazpen honen laugarren zuzenbideko oinarrian aipatu diren dokumentuen idazketa barne hartzen duten arkitektura-zerbitzuak. Kontratuak ez du barne hartzen obren zuzendaritza fakultatiboa.

PTBAren 3. atalak kontratatu beharreko zerbitzuen irismen generikoa zehazten du eta, besteak beste, xedatzen du oinarritzko proiektua eta jarduera-proiektuak nahikoa izan beharko direla Administrazio eskudunek dagozkien lizentziak eskuratu ahal izateko. Halaber, 3. atal horrek xedatzen du esleipendunaren aldetiko dokumentazio-entrega bakoitzak Arkitektura Zerbitzuaren gainbegiratzea igaro beharko duela, Gizarte Politikako Departamentuaren berariazko onepenarekin batera, alderdi funtzionalei eta beharren programari dagokienez.

Bestalde, PTBAren 10. atalak kontratuaren xede diren dokumentu teknikoaren irismen xehatua zehazten du. Honela, 10.1.3.1 atalean eskatzen da oinarritzko proiektuak zehatz mehatz defini ditzan obraren ezaugarri orokorrak, irtenbide zehatzen hautaketa eta justifikazioaren bidez. 10.1.4.1 atalak xedatzen du jarduera-proiektuek aurreikusitako bi jardueren (erreferentziako zentroa eta lurpeko aparkalekua) ezaugarriak zehaztuko dituztela, dagozkien administrazio-baimenak lortzeko moduko gutxienezko definizio-mailarekin.

10.1.5.1 atalak xedatzen du egikaritze-proiektuak instalazio-sistemaren garapen eta definizio osoa izango dituela barne. Egikaritze-proiektuaren

Supremo, cuando éste fundamenta su fallo (Fundamento de Derecho Tercero) en la falta de argumentos de la Administración contratante para desvirtuar la conclusión alcanzada por la Sala de instancia, concretamente, en que el objeto del contrato (cuyo contenido no se desprende de la sentencia) "no consistía en la obtención de tales planos o proyectos o bien que no se trataba de un concurso de proyectos organizado en el marco de un procedimiento de adjudicación de un contrato de servicios".

NOVENO.- Pues bien, el contrato cuyos pliegos se impugnan consiste, según el apartado 1 del PPTP, en servicios de arquitectura que incluyen la redacción de los documentos que han quedado mencionados en el fundamento de derecho cuarto de esta resolución. El contrato no incluye la dirección facultativa de las obras.

El apartado 3 del PPTP concreta el alcance genérico de los servicios a contratar y determina, entre otras cuestiones, que el proyecto básico y los de actividad habrán de ser suficientes para la obtención de las licencias correspondientes por parte de las Administraciones competentes, así como que cada entrega de documentación por el adjudicatario requerirá una supervisión por el Servicio de Arquitectura, así como una conformidad expresa por parte del Departamento de Políticas Sociales en lo referido a cuestiones funcionales y de programa de necesidades.

